

## FORO ERREGULARRERAKO INFORMAZIOA – 2019KO URRIA

### 1. KONPROMISOAREN IZENA: Kontuak ematea agintaldiko planen bidez

#### 1. FASEA: 2018-2019

#### 1) Erakunde / pertsona parte-hartzaileak (adierazi kopurua, erakunde publiko eta pribatuen %, emakumeen eta gizonen %)

- a. Konpromiso-taldea: 39 pertsona
  - i. % 72 gizonak, % 28 emakumeak
  - ii. % 41 erakundeak, % 28 herritarrak eta % 31 adituak

#### 2) Konpromiso-taldearen eta foro irekiaren bilerak (adierazi bileren kopurua eta parte-hartzaileen kopuru orokorra)

1. konpromisoko kideak egun hauetan elkartu dira aldi honetan

- 2018-10- 7an, Bilbon, 27 pertsona.
- 2019-01-17an, Donostian, 21 pertsona.
- 2019-09-11n, Bilbon, 16 pertsona.

#### 3) Orain arteko mugari / entregagai nagusiak (jarri estekak)

- Kontu emateko printzipioak eta agintaldiko planak adostu dira: [eztabaida-dokumentua](#)
- Tokiko agintaldi-plan bat prestatzeko eta kontuak emateko prozesuan txertatu behar diren elementuen kategorizaziorako lehenengo proposamena egin da:
  - [2019/01/17ko akta](#)
  - [Inkesta edo galde sorta](#)
- Adituekin batera egindako lanetik abiatuta, tokiko agintaldi-plan bat prestatzeko eta kontuak emateko prozesuan txertatu behar diren elementuen kategorizaziorako lehenengo proposamena ezartzea:
  - [2019/09/11ko akta](#), non elementuen kategorizazioa jasotzen den, udalekin alderatzeko.

#### 4) Orain arteko zailtasun handienak (adierazi zein izan diren eta nola jorratu diren)

2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeek baldintzatu egin dute 1. konpromisoan aurreikusitako lanen garapena, egun horren aurretik eta ondoren, harik eta gobernuko organoak behin betiko eratu diren arte.

Hala ere, aurrera egin da euskal erakundeentzat (autonomia-, foru- eta toki-mailetarako) agintaldiko konpromisoei buruzko informazioa argitaratzeko oinarritzeko estandar aurreratu bat adostasunez eraikitzeke orduan, jarraipen-metodo batekin eta partaidetza-/komunikazio-plan batekin (auditoretza sozialaren ikuspegitik abiatuta).

Agintaldiko planaren ekintzak edo konpromisoak zehazteko fitxa bat sortu da, hiru jarduketa-maila jasotzen dituena, eta ekintza edo konpromiso horien

jarraipena/ebaluazioa egiteko fitxa ere egin da; planaren ekintzak identifikatzeko gai sektorialak identifikatu dira, eta kontu emateko prozesuetan harremana edo lankidetzaz izateko agenteen tipologiak zerrendatu dira. Bestetik, tokiko agintaldi-plan baten kontuen berri emateko euskarriak/kanalak zehaztu dira. Eta planaren eredia kontrastatu eta hobetzeko auditorietza soziala 2020ko ekaina baino lehen egitea pentsatu da.

## 5) Kronogramaren betetze-maila (adierazi aurrerapenak, OGPari entregatutako konpromiso-fitxan azaldutakoaren arabera)

Mugarriak:

- Adituen proposamena euskal udalerrietako ordezkariekin erkatzea – Hasiera-eguna: 2019-10-1; Amaiera-eguna: 2019-11-30:
  - 2019ko azaroan, planaren eredia aurkeztuko zaie udalei.
- Oinarrizko materiala prestatzea eta zabaltzea, udalerrri gehiagok ekin diezaioten tokiko agintaldi-plan bat egiteko eta hari buruzko kontuak emateko jardunari – Hasiera-eguna: 2019-12-1; Amaiera-eguna: 2019-12-31:
  - Beste udal batzuk atxikitzea bilatuko da, planaren eredia 2019ko abendua baino lehen praktikan jar dadin.
- Tamaina txikiko udalerrietan tokiko agintaldi-planak ezartzeko proiektu pilotu gutxi batzuk hautatu eta monitorizatzea – Hasiera-eguna: 2019-12-1; Amaiera-eguna 2020-3-31:
  - 2019ko abenduan, planaren ereduaren lehenengo pilotua egingo da.
  - 2020ko martxoan baino lehen, planaren eredia aplikatuko da, eta udalek elkarlanean edo lankidetzan ikasteko esparrua ezarriko da.
- Pilotuaren ebaluazioa: Hasiera-eguna: 2020-4-1; Amaiera-eguna: 2020-6-30
  - 2020ko apirilaren 1aren eta ekainaren 30aren artean, kontrastea egingo da tartean diren udalekin.

## 6) Pilotuen egoera – hala badagokio (erakunde parte-hartzaileak eta proiektuen xedeak)

2019ko abendua baino lehen, agintaldiko planaren ereduaren lehenengo pilotua egingo da.

## 2. FASEA: 2019 - 2020

### 1) IRM gomendioak (adierazi zein urrats emango diren horiek jorratzeko)

- *Elementu batzuk zehaztu, herritarrek aukera izan dezaten azalpenak eskatzeko edo zigortzeko agintaldi-planak ez betetzea:*
  - Aurreikusituz, konpromisora biltzen direnean egingo da kontrastea udalekin, IRMren gomendioak gauzatu daitezten.

- *Hauek egiaztatzea: kanalak eta informazioa erabiltzaile potentzialei egokitzen zaizkiela, edo herritarrei kontsulta egiteko praktika nola txertatzen den administrazioen kulturean:*
    - Udalekin aztertuko da, konpromisora bildu ondoren.
- 2) Epe laburrean ekin behar zaien konpromisoaren erronka nagusiak (adierazi zein diren eta zein neurri aurreikusi diren horiek jorratzeko):**
- *Mekanismo batzuk ezartzea, herritarrek ordezkari politikoen eta funtzionario publikoen egitekoa azal dadila eskatzeko duten gaitasuna indartzeko, bai eta erantzun desegokiak zigortzeko moduak ere:*
    - Lehenik eta behin, tokiko agintaldi-planaren eredia kontrastatzea, zehaztea eta onartzea aurreikusi da.
    - Baita tamaina txikiko udalerrietan tokiko agintaldi-planak ezartzeko proiektu pilotu gutxi batzuk hautatu eta monitorizatzea ere.
  - *Herritarrek agintaldi-planen adierazleei buruzko informazio gehigarria eskatu eta erantzun desegokiak zigortu ahal izateko mekanismoak diseinatu eta probatzea:*
    - Herritarrekin elkarerraginean aritzeko bidea emango duten mekanismoak aztertuko dira.
  - *Politika publiko sektorialen konpromisoak txertatzea Etorkizuneko ekintza-planetan:*
    - Proiektu pilotua ezarri ondoren aztertuko da.
- 3) Komunikazioa eta kontu-ematea – Nola iritsiko da landutakoa jendearengana? Nola erraztuko da ekarpenak / hobekuntzak modu irekian jasotzea edo ebaluazio-tresnak sortzea?**
- Kontu emateko euskarri eta kanalak zehaztuta daude dagoeneko, eta herritarrek parte hartzea aurreikusi da, baina parte hartzeko modua diseinatu behar da oraindik (auditoretza sozial egokia egite aldera udalekin kontrastea egin eta gero diseinatuko da).